



Leioa berdintasunetik
desde la igualdad !

PARTE-HARTZE PROZESUA

Leioa, 2018

Norentzat:



Nork:

hiri. Dunak taldea



Noren partaidetzarekin:



Norekin:



Aurkibidea

Sarrera	3
1.- Datu orokorrak	5
1.1. HELBURUA	6
1.2. PROZESUAREN METODOLOGIA	7
1.3. KOMUNIKAZIOA	11
1.4. UDAL PERTSONAL TEKNIKOAREN FORMAKUNTZA	13
2.- Emaitzak	19
2.1. PARTE-HARTZE HERRITARRAREN DATUAK	20
2.2. ELKARRIZKETAK	23
2.3. INKESTA	27
2.4. SAIO ESPEZIFIKOAK	32
2.5. SAIO IREKIA	40
2.6. PLANOAK	42
3.- Ondorioak	47
3.1. PROZESUAREN METODOLOGIA ETA KOMUNIKAZIOA	48
3.2. PARTE-HARTZE HERRITARRAREN EMAITZAK	49

Sarrera

Hirigintza gaiak maiz zer edo zer urrun, tekniko eta gure ahalmenetatik kanpo dagoen gai konplexu gisa ulertzen dugu, baina errealitatea, gai urbanoak gure egunerokotasunean txertatuak dauden gauzak direla da. Elkartzeko gertuko guneak, zerbitzuak, garraioa publikoa, ... gure eguneroko bizitzaren oinarriak dira, gure memoriaren agerleku eta gure identitatearen paisaia. Hiria egunero egiten dugu eta Jane Jacobs hirigile famatuak esan zuen moduan “ Gure planak herritargoari eta ez eraikuntzei egokitu behar zaizkio”.

Leioako HAPO berri bat idazketa garatzeko prozesua hastear da, hau da, hurrengo urteetako Leioa nolakoa izango den markatuko duen berraztertzea. Ohikoa den moduan prozesu honek parte hartze herritarra bermatze aldera kanal ezberdinak helaraziko ditu, aldaketa puntualetan egin ohi den moduan. Kasu honetan baina, orain arte kontutan hartu ez den ikuspuntu batekin lan egingo dugu, generoarena hain zuzen ere.

Leioako udaleko Berdintasun arloak azterlan honetan lan egin du, prozesu parte – hartzaile honetan oinarritzen dena besteak beste eta ostera, azterlan honekin Leioako HAPO berri eta zaharraren berrazterketan lanketa egingo da eta kontutan hartuko da.

Prozesu parte – hartzaile honen bitartez batik bat Leioako emakumeek herriko zonalde ezberdinekiko dituzten sentrazioak helarazten ahalegindu da. Seguruago edota gehiago erabiltzen dituzten zonaldeak identifikatuz eta kontrari gutxien erabiltzen dituztenak zeintzuk diren ere aztertuz.

“Gure planak hiritargoari
eta ez eraikuntzei egokitu
behar zaizkio.

JANE JACOBS

1. Datu orokorrak

1.1. HELBURUA

HELBURU OROKORRA

Hizkuntza komun bat ezarriko duen lan prozesu bat sortzea, LEIOA INKLUSIBOAGO baten bidean lanerako espazioen sorrera baliatuko duena.


HELBURU ESPEZIFIKOAK

Leioako emakumeekin batera prozesua Ikerketa- Akzio Parte-hartzaile prozesu bat burutzea: Hirigintza eta generoaren arteko harremana gizartearengan argia ez den gaia da gaur egun. Hirigintza planeamenduak gure egunerokotasunean duen eragin zuzenaren eraginaz ez gara kontziente gehienetan, ez eta zer nolako erreflexua duten gure behar eta eskariak ordenazio tresnetan – plan orokorrak edota arau subsidiarioak-. Ez jakina da halaber, “lorpen” asko ez direla beste eremu batzuetara eramaten eta beraz ez direla efektiboak egiten. Ondorengo adibideak kasu; espaloien zabalera minimoa gurpildun aulkiak pasatu daitezzen edota antzeko karroen kasuan – irisgarritasun planetan -, oinezko eremuak ezartzea, bizikleta erreiak edota garraio publikoaren egokitzapen eta hobekuntzak -lekuko agenda 21etan -, ekipamendu berrien sorrera – kultura edota zerbitzu sozialetan -, Guzti hauek plan edota udal plangintzetan barnebiltzen diren neurriak dira, baina ezarpen egingarriak izan dadin ezinbestekoa da arau urbanistikoetan itzulpena izatea. Neurri hauek gutxitan dira ezagunak eta are gutxiago nola planifikatu behar ote den genero arrazoiengatik diskriminazioa ekiditeko. Horregatik parte – hartze prozesu bat burutzearen helburuak, gaiaren inguruko formakuntzaren eskutik joan beharra du aldi berean.

Helburua beraz, formakuntza eta parte – hartzea bateraturik burutuko dituen saioak garatzean datza. Prozesu honetan era guztietako emakumeak inplikatuaz; elkartegintzan dabilzanak, ez dabilzanak, adin ezberdinetakoak, behar desberdinak dituztenak, kultura ezberdinetakoak, etxetik kanpo lan egiten dutenak zein etxeko lanetan dabilzanak, ikas-tera doazen gazteak, adinarengatik mugikortasun arazoak dituztenak edota beraien kargu pertsona dependienteak dituztenak, eskolara haurrak eramaten dituzten amak, Leioan negozioak dituztenak,...

Azkenik, nabarmendu nahi dugu prozesu honek udal langileria teknikoa hirigintzan genero ikuspegiaren inguruan formatzea izan duela helburutzat baita ere, hirigintzaren ikuspuntua aberastu eta zentzu honetan kontzientziatioari begira. Herritarrekin batera hizkuntza komuna sortzeko helburu orokorraren bidean.

1. 2. PROZESUAREN METODOLOGIA



Prozesu parte-hartzaileak fase eta eremu ezberdinak izan ditu aurreko orriko eskeman ikus daitekeen bezala. Lan eremuak ondorengoak izan dira:

SOZIOGRAMA

Iritsi beharreko subjektua ongi definitze aldera lehenik eta behin udaleko Berdintasun departamentuarekin batera prozesu honen bitartez iritsi beharreko norbanako eta elkarte/eragileen zerrenda osatu dugu. Zerrenda honetatik datu base bat garatu dugu eta behin kontaktu guztiak bilduta proposatutako saio espezifikoen arabera sailkapen bat egin dugu; emakumeak, haurrak, gazteak, baztertze arriskuan dauden pertsonak eta adinekoak. Datu base hau gure abiapuntua izan da prozesurako lehentasunezko pertsona eta kolektiboak zeintzuk ziren definitzerako orduan. Datu base hau handitzen joan da prozesuan aurrera egin dugun ahala.

ELKARRIZKETAK

Elkarrizketak hurbileko bilera malguak izan dira, bisita teknikoetan garatu ditugu pertsona edota talde txikiekin. Kasu gehienetan hitzartutakoak izan dira baina kasu baten batean, bat batekoak ere sortu dira eta alde batetik informazioa biltzeko baliagarriak izan dira baina baita prozesua helarazteko eta zabaltzeko ere. Bestalde pertsona hauek prozesuarekin inplikatzeko oso baliagarriak izan dira. Prozesu honetan zehar 6 elkarrizketa burutu ditugu, ondorengoak:

- BILGUNE FEMINISTA
- JOXE BELMONTE -Udaleko Parte-hartze teknikari arduraduna
- GAZTEAK
- ANDRAK
- ALTZAGA ESKOLAKO AMPA
- SOLASGUNEA

Elkarrizketetarako proposatutako metodologia ondorengoak izan da:

- Prozesuaren azalpena.
- Elkarrizketatutako pertsona edota kolektiboaren inguruko informazioa jaso.
- Soziogramaren datu basearen errepassoa egin, osatze eta Leioaren errealtatearekiko egokitzeko ahaleginarekin.
- Saio espezifikoen deialdien errepassoa egin data eta lekuak kontrastatzeko eta egokitzeko asmoz , aldi berean elkarrizketatutako pertsona/k deialdietan difusioan inplikatu.

SAIO ESPEZIFIKOAK

.Eragile, elkarte zein norbanako ezberdinei zuzenduriko 5 saio proposatu dira:

- Emakumeak
- Haurrak *
- Gazteak**
- Baztertze arriskuan dauden pertsonak

- Adinekoak

Saio hauen prestaketan, eragile feministekin, elkarte kulturelekin, aisialdi taldeekin, mugikortasun urriko pertsonen elkarteekin eta herriko bestelako elkarte zein eragileekin kontaktuan jarri gara parte - hartzea ahalik eta anitzen izateko asmoz, hala nola, pertsona hauen posibilitateen arabera ordutegi eta lekuak ezartzeari begira. Elkarrizketen fasean ere kontraste hau egin dugu, aipatu bezala .

* Haurtzaroaren inguruko lehenengo saiora ez zen inor agertu, programatutako lehenengo saio espezifikoak izan zen eta honen deialdia egiteko ez zen ia denbora tarterik egon, horregatik beste egun batean deialdia errepikatzea baloratu genuen eta horretara bai agertu zirela parte-hartzaileak.

** Gazteen saio espezifikora ez da inor agertu ezta ere, kasu honetan beste deialdi bat ezartzen ahalegindu gara baina ezinezkoa izan da parte hartze minimo bat bermatzea. Kontutan hartu behar da saio hauek 2018ko maiatzeko azken aste eta ekaineko lehenengo bi asteetan zehar burutu direla eta garai hori kurtso akademikoaren amaiera datak dira gazteekin lan egiteko aukera oztopatu digularik.

Saio espezifikoetan garatutako metodologiak bi zati nabarmen izan ditu:

- Formakuntza eta sentsibilizazioa, hirigintza prozesuetan herritarren parte-hartzea sustatzek o asmoz garatutako ahalduntzea.

- Saioaren bigarren zatia azterketa eta hausnarketara bideratuta diseinatu dira, zeinetan gaur egungo erabilera eta beharrak identifikatu diren zein inguruarekiko pertzepzioak ere. Horretarako, talde hauen lan saioetatik jasotako informazioa A1 tamainako Leioako plano batzuetan jasotzea izan dugu helburu, ahalik eta informazio gehiena planoetan jasotzeko asmoz. Planoez gain idatziz ere jaso da informazio asko HAPO-etako arlo orokorren arabera antolaturik emaitzetan ikusiko dugun moduan.

Saio bakoitzeko metodologia parte-hartzaile motaren arabera egokitu dugu, haurren saioaren kasuan arlo berdinen inguruan lan egin dugu baina metodologia simple eta argi-ago batekin, beraien adinetara egokitutakoa.

SAIO IREKIA

Saio hau hausnarketa ariketa bezala proposatu da. Bertan ondorengo gaiak landu dira; lurralde eta hiri eredia, kudeaketa, mugikortasuna (auzokoak garrantzi berezia izanik), ekipamenduak, etxebizitza, espazio publikoa, segurtasuna, irisgarritasuna (ez soilik fisikoak, gizarte eta ekonomikoak ere kontutan hartuz) eta parte-hartzea.

Foro honetan pertsona guztiak modu berdinean tratatu dira eta inork ez du protagonismo edota trataera berezirik izan. Horretarako, ezinbestekoa izan da parte-hartze tresna egokiak erabiltzea ahots guztiak entzuteko gaitasuna egoteko.

Saio irekian garatutako metodologia ondorengoa izan da:

- Prozesu osoaren aurkezpena.
- Pertzepzioen inguruko ariketa Leioako A1 tamainako planoen gainean.
- Leioaren inguruko positibo eta negatibotasunen inguruko ariketa.
- Momentu horretara rarte jasotako informazioaren emaitzen aurkezpena.
- Aurkeztutako diagnostikoaren inguruko proposamenak plazaratzeko ariketa.



INKESTA

Inkesta prozesu presentziala indartzeari begira proposatu da. Saiotara etortzeko aukera izan ez duten pertsonen aportazioak jasotzeko aukera eskainiaz eta bestalde modu anonimoan herritarrek ere aportazioak egiteko aukera izan zezaten.

Bestalde, inkestak difusio funtzioa ere bete du, hirigintza inklusiboaren inguruko eztabaida sortaraziz herrian.

Inkesta ahalik eta jende gehien eta anitzengana iristeko asmoz bi modutan eskaini da, udaleko web orriaren bitartez betetzeko online aukera eta bestalde herriko leku estrategikoetan paperean zabaldu dira, teknologia berriekin ohituta ez dagoen pertsona orok ere aukera izan zedin inkestaren bitartez parte-hartzeko.

Garatutako inkesta orri honetan bertan ikus dezakegun haxe da.



Adina/ Edad:

Generoa/ género: Emakumea/ mujer Gizona/ hombre Besteak/ otros

Bizi edo lan egiten duzun auzoa/ barrio donde habitas o trabajas:

Leioarekin duzun harremana/ Relación con Leioa:

Lan egin/ trabajar Bizi/ Habitar Ikasi/ estudiar Familia/ familia

Tarteka etorri/ visitas puntuales Besteak/ otros

Leioaren pertzepzioak/ percepciones sobre Leioa:

1. Zer da Leioatik gehien gustatzen zaizuna?/ ¿Qué es lo que más te gusta de Leioa?:

2. Zer da Leioatik gutxien gustatzen zaizuna?/ ¿Qué es lo que menos te gusta de Leioa?:

3. Zer aldatuko zenuke?/ ¿Qué cambiarías?:

4. Zer hobetuko zenuke?/ ¿Qué mejorarías?:

Sobre tu barrio/ zure auzoari buruz:

5. Zer da zure auzotik gehien gustatzen zaizuna?/ ¿Qué es lo que más te gusta de tu barrio?:

6. Zer da zure auzotik gutxien gustatzen zaizuna?/ ¿Qué es lo que menos te gusta de tu barrio?:

7. Zer aldatuko zenuke?/ ¿Qué cambiarías?:

8. Zer hobetuko zenuke?/ ¿Qué mejorarías?:

1.3. KOMUNIKAZIOA

Prozesu honen difusiorako erabilitako komunikazio tresnak ugariak izan dira, horietako batzuk dagoeneko aipatu ditugu, soziogramaren bitartez garatutako datu basea, egindako elkarrizketak eta inkesta. Guzti hauen helburu nagusia ez da komunikatiboa izan baina funts honetarako ere erabilgarriak izan dira.

Aipatutakoetaz gain ondorengo komunikazio tresnak erabili ditugu:

MAILING-A

Saio parte-hartzaileak zabaltzerako orduan gehien bat erabili dugun tresna izan da. Mailing zerrenda soziogramaren ondorioz garatutako datu basetik garatu da, orokorrean horrelako prozesuetan parte hartzen duten herritar standard-etik ihes egin eta bestelako herritarrengan jarri dugularik foku nagusia, prozesu honetako subjektu nagusiak baitira. Mailing-a udaleko Berdintasun departamentuko helbide elektroniko ofizialetik burutu dira.

BRANDING-A (MARKA-IRUDIA-ESLOGAN-A)

Prozesurako marka bat diseinatu da, irudi batez, kasu honetan Zuriñe Burgoak egindako ilustrazioa eta eta eslogan batez “Leioa berdintasunetik! ¡Leioa desde la igualdad!” . Marka hau garatutako prozesua modu errez eta bisualean errekonozitzeko asmoz garatu da. Marka hau prozesurako sortutako bitarteko komunikatibo guztietan erabili da.





KARTELAK-DIPTIKOAK-BUZONEOA

Sortutako markatik abiatuta prozesuko saio ezberdinak azaleratzeko kartel ezberdinak egin dira. Saio espezifiko zein saio irekiaren datak zabaltzeko egindako kartel nagusia bestalde, diptiko formatuan Leioako etxebizitzetara “buzoneatu” da baita ere.

WEB ORRIA

Udalaren www.leioa.net web orrialdea prozesu honen online plataforma nagusia izan da, bai deialdiak zabaltzeko zein eta online inkesta egiteko ere.

SARE SOZIALAK

Udalaren sare sozialak prozesua ezagutzera emateko, udaleko web orrialdera bidaltzeko deialdiak zabaltzeko eta prozesuaren inguruko albisteak zabaltzeko baliogarriak izan dira. Prozesu honetan zehar erabilitako sare sozialak facebook eta twitter izan dira.

UDAL ALDIZKARIA

Hileteroko udal aldizkaria baliatuz prozesua azaltzen zen artikulua idatzi da prozesua azaltzen eta baita saio presentzialen datak azaleraziz ere.

ELKARRIZKETAK

Azkenik, tokiko komunikabide batzuetan elkarrizketan egin dizkigute, prozesuaren nondik norakoak ezagutzeko as-



1.4. UDAL PERTSONAL TEKNIKOAREN FORMAKUNTZA

UDALEKO PERTSONAL TEKNIKOARENTZA HIRIGINTZAN GENERO IKUSPEGIARI BURUZKO FORMAKUNTZA

Parte-hartzearen barruan Udaleko pertsonal teknikoarentzat atal espezifiko bat gehitu nahi izan da. Talde honen parte-hartzea aurrez aurreko formakuntza saio batzuen bidez proposatzen da eta online bidezko aholkularitzarekin osatzen da. Haien eguneroko lanean hiriko gaiak lantzen dituzten pertsonen hirigintzan genero ikuspegia lantzen duen formakuntza garrantzi handikoa dela uste dugu, izan ere, pertsona hauek dira haien eguneroko lanean ikuspegi hau txertatu dezaketenak, administrarritza beretik hiri-praktika eta diseinuak hobetzeko.

Aldi gehienetan pertsona hauek proiektu eta jarduketetan hirigintzan generoaren ikuspegia ez txertatzearen zergatia ez da interes edo sinesmen falta, formakuntza eza baizik. Formakuntza jaso duten pertsonen ikuspegia zabaldu egiten da haien eguneroko lan arloan formakuntza jaso ondoren, eta ondorioz, lan egiten duten alor eta saileko proiektu eta hiri-jarduketak hobetzen dituzte. Izan ere, ikuspegi barneratzailea txertatzeak proiektu eta hiri planetan ez du lan-karga gehiago suposatzen, proiektuaren kalitatearen handiagotzea baizik.

METODOLOGIA

Formakuntzaren atala bi saio teorikoetan eta online bidezko aholkularitzan antolatu da. Saiotarako Leioako udalean hiri gaiak eta proiektuak lantzen dituzten sail eta arlo desberdinetako pertsonal teknikoa deitu da; hirigintza, zerbitzu teknikoak, obrak, bertako polizia, etab. Pertsonal tekniko honetaz gain, zenbait ordezkari politikoren bertaratzea izan da; gertaera honen aldeko irakurketa egiten da, izan ere ikuspegia eskala politikora zabaltzea suposatzen du, eta askotan hiri-proiektuen ekimena eta erabakia maila politiko honen esku dago.

1. SAIOA

Helburuak:

- Udaleko pertsonal teknikoa hirigintza genero ikuspegi arlotik formatu. Hurbilketa orokor batetik generoa hirigintzan kokatu eta hirigintzarekiko ikuspegi honen kontzeptu orokorrak eta ardatz nagusiak txertatu. (Sailak: hirigintza; zerbitzu teknikoak; obrak; lorezaintza; berdintasuna; mugikortasuna; bertako polizia, etab.)

- Baldintza-agirietan genero ikuspegiaren txertaketarekin erlazioa duten klausula zehatzen zenbait adibide azaldu .

- Lizitazio publikoetako baldintza-agirietan klausula zehatzen txertaketaren inguruan eztabaidatu. Adibideak eta beren eraginak ebaluatu.
- Bigarren formakuntza saiorako data zehaztu eta erlazionatuta dauden sail teknikoaren behar eta eskari zehatzen arabera edukia adostez bukatu.
- Formakuntzan parte hartzen duten teknikarien eskutik egun indarrean dagoen HA-POaren azterketa jaso (bertute eta gabezia nagusiak).
- Egungo hiri egoeraren lehen azterketa jaso: arazo nagusiak eta etorkizunerako erronkak.

Data: 2018ko apirila

Iraupena: 4h

Saioaren egitura:

1. Aurkezpen teorikoa

KONTZEPTUAK

Generoaren oinarriko kontzeptuen eta hirigintza genero ikuspegiarekin erlazioa duten kontzeptuen definizioa; generoa, genero rola, lan produktiboa/erreproduktiboa; desplazamendu-katea; hiritargo anitza eta konplexua;...

SARRERA OROKORRA

Egungo hiriaren azterketa: jatorria eta erreferentziako garapen ereduak. Eredu ekonomikoa eta hirigintzako mugimendu modernoaren funtzionalismo eta zonifikazioa. Egungo hiri ereduarengan horien inpaktua eta erlazioa.

ARDATZ NAGUSIAK

Hiri ereduaren hirigintzan genero ikuspegi batetik; aldagai nagusiak eta kontutan eduki beharreko ardatz nagusiak.

2. Genero ikuspegiarekin erlazioa duten klausulak baldintza-agirietan

HAPO berrien erredakzioen edo HAPO-en berraztertzeen lizitazio publikorako zenbait baldintza-agiriren aurkezpena (kasu honetan Euskal Erkidegoko udalerrietan). Beraien eraginaren azterketa eta nola landu eta txertatu klausula zehatzetan lehen saio teorikoan aurkeztutako gai eta arloak. Bertaratutako pertsonal teknikoarekin hitz egin eta eztabaidatuko da Leioako kasu zehatzak dituen behar eta eskariak eta HAPO berriaren lizitaziorako prestatu beharreko baldintza-agiria.

3. Guztiaren azterketa

Bertaratutako teknikari guztien artean egungo Leioako egoeraren azterketa indarreko HAPO-arekin erlazionatuz egitea proposatzen da, HAPO honen bertute eta gabezi nagusiak azalduz. Bukatzeko, HAPO berriari begira sail desberdinetan egiten duten eguneroko lanean oinarrituta etorkizunerako aurreikusten dituzten arazo eta erronka nagusiak bilduko dira.

Landu daitezkeen gaiak:

- Indarreko erreferenteak: 2001eko HAPOa, Leioako hirigintza planak, egungo hiri proiektuak, mugikortasun planak, etab.
- Egungo egoera
 - Inguru fisikoa (lurzoruaren erabilerak, habitatak eta faunak, paisaia, etab.)
 - Sozioekonomikoa: demografía, etxebizitza eskaera, etab.
 - Kokaguneak: bizilekuak, espazio libreak, ekipamenduak, produktiboak (industrialak eta tertziarioak).
 - Mugikortasuna
 - Azpiegiturak
 - Ondarea
 - Merkataritza
 - Etorkizuneko erronkak
 - ...

Bertaratutakoak:

Lehen formakuntza saiora guztira sei pertsona biltzen dira. Horietatik erdia emakumeak dira eta beste erdia gizonezkoak. Profilarri dagokionez, azaldutako bost pertsona udaleko sail desberdinetako pertsonal teknikoa dira; eta pertsona bakarra udaleko ordezkari politikoa.

2. SAIOA

Helburuak:

- Formakuntzako lehen saioaren ondorioen itzulpena egin. Zalantzak eta galderak argitu.
- Lehen saioan aurkeztutako kontzeptuak garatzeko alderdi nagusiak garatu.
- Hiri barneratzaile eredu eta eredu hau udalerrri eta auzoetan garatzeko arloko lan egiteko lan proposamena aurkeztu.
- Aurkeztutako arloak eztabaidatu Leioaren kasurako.
- Leioako lizitazio zehatzerako baldintza-agirian txertatu daitezkeen funtsezko alderdiak aztertuta (saioa egindako datan baldintza-agiria eskuragarri ez zegoenez, pertsonal teknikoak aurkeztutako behar eta proposamenetatik egiten da).
- Zalantza konkretuak argitu.

Data: 2018ko maiatza

Iraupena: 3h 30

Saioaren egitura:

1. Itzulpena eta eztabaida

Formakuntzako lehen saioaren gainbegirada labur eta orokorra egingo da eta partaideek aurkeztutako ondorioak jasoko dira.

2. Aurkezpen teorikoa

Lehenik, hiri barneratzaile ereduaz azalduko da, genero ikuspegia txertatu eta garatzen duen hiri eredu bezela. Egungo hiri ereduarekin alderatuko da.

Bigarrenik, hiri barneratzaile eredu hau udalerrri eta auzoetan garatzeko arloka lan egiteko lan proposamena aurkeztuko da. Lehen saioan teorikoki aurkeztutako gai nagusiak eredu zehatzen bidez aztertuko dira, arloka lan egiteko proposamenaren arabera: lurralde eredu ; mugikortasuna; ekipamenduak; etxebizitza; espazio publikoa.

Hirugarrenik, aurkeztutako arloak Leioaren kasu konkreturako eztabaidatuko dira.

3. Baldintza-agiria idazteko proposamen zehatzen inguruan zalantzak argitu

Leioako lizitazio zehatzerako baldintza-agirian txertatu daitezkeen funtsezko alderdien azterketa (saioa egindako datan baldintza-agiria eskuragarri ez zegoenez, pertsonal teknikoak aurkeztutako behar eta proposamenetatik egiten da).

Bertaratutakoak:

Bigarren formakuntza saiora guztira bost pertsona biltzen dira. Horietatik bi emakumeak dira eta lau gizonezkoak. Profilarri dagokionez, azalduko hiru pertsona udaleko sail desberdinetako pertsonal teknikoak dira; eta bi udaleko ordezkari politikoak.

ONLINE AHOLKULARITZA

Helburuak:

- Formakuntzan parte hartu duen udaleko pertsonal teknikoaren eta formakuntzaren talde arduradunaren artean komunikazio eta harreman kanala ireki.
- Udaleko pertsonal teknikoak beraien eguneroko lanean formakuntza saio teorikoetan aurkeztutako kontzeptuen inguruan eduki ditzaketen zalantzak argitu.
- HAPO berriaren lizitaziorako idatzi beharreko baldintza-agiria lantzen joan aurrez aurreko saioan lana aurreratuta edukitzeko.
- Formakuntzan parte hartu duen udaleko pertsonal teknikoaren eta Leioa Berdintasunetik! proiektuaren artean komunikazio eta elkarrizketa kanala ireki.

Data: 2018ko maiatza eta uztailearen artean

Iraupena: Bi hilabete inguru

Metodologia: Email eta telefono bidezko aholkularitza

Partaidetza:

Nahiz eta online aholkularitza maiatzean ireki eta uztailean bukatutzat eman, bi data hauen artean ez da udaleko pertsonal teknikoaren aldetik kontsultarik jaso. Baliteke hau gertatu izana oraindik ez dagoelako prest HAPO berriaren lizitaziorako baldintza-agiria; izan ere aurrez aurreko saioetan udaleko pertsonal teknikoaren jarrera aldekoa eta lagungarria izan da.

2. Emaizak


2.1 PARTE-HARTZE HERRITARRAREN DATUAK

PARTE-HARTZE EREMUAK		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
ELKARRIZKETAK		15	5	20
EMAIL BIDEZKO APORTAZIOAK		1	0	1
INKESTA		11	9	20
SAIO ESPEZIFIKOAK	EMAKUMEAK	4	0	4
	HAURRAK	5	0	5
	GAZTEAL	0	0	0
	BAZTERTZE ARRIS-KUKO PERTSONAK	2	1	3
	ADINEKOAK	5	0	5
SAIO IREKIA		7	5	12
GUZTIRA		50	20	70

Taula hauetan parte-hartzearen datu kuantitatiboak azaleratzen ditugu, generoaren arabera parte-hartze eremu ezberdinekiko eta baita adin tarteen arabera parte-hartze kopuruen taula. Generoa definitzerako orduan argitu nahi dugu emakume eta gizon aukerez gain "bestelakoa"-ren aukera eskaini dugula baina parte hartzaile bakar batek ere ez du bere burua horrela definitu.

Inkesten kasuan behelaldean ED-EE (Ez daki-ez du erantzun) aukeran ikus daitekeen moduan hainbat pertsonak nahiago izan dute beraien adina ez definitu.



ADIN TARTEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
0 - 11 URTE	6	1	7
12 - 17 URTE	0	0	0
18 - 30 URTE	4	1	5
30 - 60 URTE	21	11	32
> 60 URTE	16	3	19
ED - EE	3	4	7
GUZTIRA	50	20	70



% 71,5 EMAKUMEAK

% 28.5 GIZONAK

- 28,5 % ELKARRIZKETAK
- 1,5 % EMAIL APORTAZIOAK
- 28,5 % INKESTA
- 24,3 % SAIO ESPEZIFIKOAK
- 17,2 % SAIO IREKIA



- 0 - 11 URTE
- 12 - 17 URTEI
- 18 - 30 URTE
- 30 - 60 URTE
- > 60 URTE
- NS - NC

2.2 ELKARRIZKETAK

Elkarrizketetan bi informazio mota bildu dugu, alde batetik elkarrizketatutako pertsona edota kolektibo/elkartearen inguruko informazioa eta bestalde diagnostikoaren inguruko informazioa bildu izan dugu kasu guztietan, kasu batzuetan proposamen aporazioak ere egin dituztelarik.

Jarraian, prozesuaren baitan egindako sei elkarrizketetatik jasotako informazioa azaltzen dugu.

Eragile feministak: BILGUNE FEMINISTA eta LEIOAKO GAZTE FEMINISTAK

Bilgune Feministako bi kide eta Leioako Gazte Feministak eragileko kide batekin elkartu gara.

Bilgune Feministari dagokionez, gaur egun bi dira eragilean iraunkorki jarraitzen dutenak eta garatzen duten proiektuaren arabera kolaboratzaile sare bat dute. Leioako Gazte Feministako kideekin harreman estua dute, eragile gaztean herriko 14 neska gazte dabilta gaur egun lanean, juridikoki elkarte bat ez badira ere ekimen edota deialdi feminista puntualak antolatzen dituzte urtean zehar. Eragile hau herrian eraso matxisten aurrean eman beharreko erantzunaren beharraz eratorri zen eta gaur egun erantzun protokolo baten lanketan dabilta udalari begira.

Prozesuari dagokionez ondorengo kezka adierazi dute: “Ahaleginak egin behar dira, prozesuan ateratzen diren ondorioak “binkulanteak” izateko. HAPO-aren prozesuaren norabidea benetan markatzeko.”

JOXE BELMONTE - Parte-hartze arloko udal teknikaria

Kasu honetan Joxe Belmonterekin elkartu gara, bera Leioako Parte Hartze udal teknikari arduraduna da. Urte asko daramatza Leioako udal teknikari gisa lanean eta udal departamentu ezberdinetan jardun du azken urteotan; hezkuntza, euskara eta gaur egun Parte-Hartze arloan ere bai adierazi dugun moduan.

Garatu dugun prozesuarekiko “Solagunea” proiektuaz aritu zaigu, udaletik bultzatutako proiektua da, herritarren parte-hartzea sustatzea da proiektu honen helburu nagusia eta proiektu honen irakaspen eta zailtasunez aritu zaigu.

GAZTEAK

Santirekin, udalaren “Mugi” programaren gizarte langilea, hitzartutako elkarrizketara modu inprobisatuan programan parte hartzen duten bi neska gazte batu ziren baita ere. Bi neska hauek, Lohitzune eta Amaia aldi berean Leioako Gazte Feministak taldeko kideak dira.

Mugi udaletik sustatutako programa bat da eta honen helburu nagusia Leioako gazteen parte-hartzea bultzatzea da, horretarako Leioako gazte batzuez osatutako lan taldea dago. Lohitzune eta Amaiak adierazi digutenaren arabera lan talde gazte honetan parte hartzen

duten pertsonak eta Leioako Gazte Feministak taldean diharduten pertsonak gutxi gora behera berdinak dira. Prozesuari dagokionez ondorengo aportazio eta hausnarketak adierazi dizkigute: Alde batetik Leioak ez duela identitate nabarmenik, nahiz eta badituen auzo batzuk, Lamiako auzoaren kasua batik bat, auzo identitate oso nabarmena duena eta auzo bizitza handia ere bai. Bestalde udalak deialdi gaitasun handia duela adierazi digute, fenomeno harrigarria, oro har ez baita hori gertatzen, baina Leioako kasuan udalaren edozein deialdik elkarte edo eragileen deialdiek baina arrakasta gehiago dutela esan digute. Jai batzorde bat ez existitzea faltan sumatzen dute, herritarrak modu aktiboago batean parte hartu ahal izateko jaien antolakuntzan eta herriko festa ezberdinen aurrekontu banaketa orekatuago bat egiteari begira. Azkenik "Solazgunea" proiektuaren inguruan hitz egin digute, aurretik dagoeneko aipatu duguna, proiektu honekiko des- konfiantza sentsazioa azalerazi digute batik bat proiektu honi bideratzen zaion aurrekontua oso handia delako eta urtean zehar ekimen puntual batzuk antolatzeaz haratago ez dutelako proiektu honen emaitza nabarmenik ikusten, proiektu honekiko herritarren ez- ezagutza eta deskonexio handia dagoela uste dute.

ANDRAK

Andrak-ekoekin hitzartutako elkarrizketan zuzendaritza batzordean diharduten lau kideekin batzartu gara; Charo, Maria Luisa, Ana eta Amaia.

Elkartearen funtzio nagusia aktibitate sozio- kulturalak antolatzean datza, arrakasta handia dute eta herriko 500 emakume inguruk parte hartzen dute gartutako aktibitateetan eta askotan duten lokala bera txiki gelditzen zaie. Adinari dagokionez elkartera gerturatzen diren emakumeen perfila oso anitza da. Andrak elkartearen helburu nagusia emakumeen arteko harremanak sustatzea da eta emakumea etxetik ateratzea, "ahizpatasuna" eta ahalduntzearen bitartez. Gaur egun duten erronka nagusienetakoa zuzendaritza batzordeko kideen belaunaldi aldaketa da, gaur egun oraindik ere 1990ean hasi ziren emakume berberak jarraitzen dute eta ia guztiek 60 urte inguru dituzte. Tailerrak eskaintzen dituzten pertsonak erdi-bolondresak dira. Elkartearen aktibitateak aurrera ateratzeaz gain udaleko zerbitzu sozialetako batzordean modu aktiboan parte hartzen dute eta Bizkaiko Foru Aldundiaren "Tartekari" sarean ere parte hartzen dute. Azkenik diskurtso feministaren zabalkundean aktiboki lan egiten dutela adierazi digute, urteko ekimen irekietan diskurtso hau helaraziz.

Parte-hartze prozesuari dagokionez, saio espezifikoetan garatutako ariketa burutu genuen beraiekin, beraz hauek egindako aportazioak ondoren azaleraziko ditugun emaitzen taula eta planoetan barnebilduta daude.

ALTZAGA ESKOLAKO AMPA

Altzaga eskolako AMPAko guraso ezberdinekin bildu ginen eskolan bertan. Elkarrizketa giro tentsuan hasi zen, komunikazio falta arazo bat dela eta Leioako erdiguneko hirigintza plan puntualaren inguruko azalpenak ematera gerturatzen ginela uste baitzuten. Gure lanketa prozesuaren nondik norakoak egoki azalerazi ostean eta gaizki ulertua argitu ostean modu aktiboagoan parte hartu zuten ondoren adieraziko ditugun proposamen luzea helaraziz.

Eskola honetako AMPA, ezintasun ezberdinen inguruko lanketa eta senbilizazioa egiten dute urtero, motako guztietako ezintasunak landuaz eta honen inguruko integrazioa lantzen, horretarako Sarriakoko eguneko zentrorra txango egiten dute 6. mailako haurrekin.

Antolamendu plan berriaren aurrean, antolatu eta mobilizatzeko prestatzen dabilta, horretarako Leioako eragile eta beste guraso elkarteekin koordinatu eta proiektu honekiko oposizioa antolatzen dabilta.

Gure proiektuaren berri ematean, errespetu osoz helarazi digute prozesu honi ez diotela inongo zilegitasunik ematen eta are gutxiago ez badator zuzenean Hirigintza sailetik. Ongizate sailetik bultzatutako proiektu batek Hirigintza departamentuan intzidentzia oso gutxi izango duela uste baitute. Prozesu honen emaitzak izan dezakeen intzidentzia txikiaren beldur dira. Hala ere, bileraren amaieran gerturatutako guztiek egindako aportazio zerrenda luze bat jaso dugu, ondoren zerrendatuta agertzen den moduan:

- Metroa lurperatzea eta erdigunera gerturatzea
- Zerbitzuak ez dira nahikoak gaur egungo biztanle kopuruarentzat
- Malda oso handiak daude eta asko oso irristakorrak dira, batzuk lixatu behar izan dituzte
- Pinosolon aparkatzeko arazoa dagoeneko
- Oinezko mugikortasunaren aldeko apustua oso ongi ikusten dute
- Kiroldegiaren tamaina "ridikuloa" gelditu dela diote, ez dio Leioak herritarren beharrei erantzuten, ona daukan bakarra kokalekua, erdigunean dagoelako.
- Igerileku berria egin dute eta txikienezako igerileku txikiaren edukiera maximoa 20 haur dira, hau ere ez dute ulertzen, Leioako hiri hazkunde ikaragarria ikusita.
- Parke eredu bezala ondorengoak adierazi dituzte; Loinak, Romokoa (tirolina),..
- Txakurren kakek Leioako zona berde guztiak zikintzen omen dituzte
- Haurrentzako parkeak oso- oso txikiak eta sinbolikoak omen dira, 2m x 2m -koak eta gainera gehienez 6 urte bitarteko haurrentzako pentsatuak, hortik gorako haurrentzat ez dago eskaintzarik ezta espaziorik ere.
- Zakar ontziak oso gaizki kokatuak daude maiz, batik bat, zebrabide aurrean kokatuak daudenean.
- Erdiguneko eta batik bat eskola zonalde inguruetan trafikoarentzako semaforoaren beharra ikusten dute.
- Eskolak, ekipamenduak, zerbitzu ezberdinak herri kanpo aldera eraman nahi dituztela salatu dute.
- Avanzada errepidea estaltzea
- Ondiz dorrearen erabilera oso eskasa omen da eta ludoteka moduan erabiltzeko proposamena egin dute.
- Hiri kudeaketari dagokionez, datuen eskaeran oso zaharkituak omen dira udal zerbitzuak. Informazioa ez dute nahikoa sistematizatu.
- Natura ibilbide gehiagoren beharra, dagoeneko proposamen ezberdinak egin omen dituzte; Umedal-aren ibilbidea, Puente kolgante- Lamiako.
- Erdigunean gune berde gehiagoren beharra nabarmendu dute.
- Plan berriaren gauza positibo bakarra proposatzen duten erdiguneko parke erraldoia da
- Oso larriki ikusten dute udalaren estrategia Leioako biztanle kopurua 50 000 pertsona bitarte igotzearena
- Osasun zerbitzuaren irisgarritasuna ez da sobera ona

- Udondo etorbidearen soportalak eta argiteria eskasak puntu beltz erraldoi bilakatzen dute eta gainera bi muturretatik izan ezik irisgarritasuna oso txarra da, bertara iristeko soilik eskailerak baitaude.

SOLASGUNEA-PETER

Azken elkarrizketa Peter-ekin izan dugu, “Herrigunea” proiektuaren parte den “Solasegunea” programaren kide dena.

“Herrigunea” proiektuak 17 urte baino gehiago daramatza martxan herrian eta proiektu integral eta konplexua da, bere oinarria berrikuntza sozialean duena. Proiektu konplexu honen parte den “Solasegunea” programan lan egiten du, honen baitan urtean zehar prozesu eta ekimen puntual ezberdinak antolatzen dituzte. Nabarmentzeko lan ildo nagusienetako bat Umeen Kontseilua da, berau “Haurren hiria” sarearen parte delarik. Umeen Kontseilua hilabetean behin elkartzten da. Bestalde Tonucci-ren filosofiari jarraiki “Bizi Bideak” izeneko beste proiektu bat jarri dute martxan orain dela 3 urte eta honen helburua umeen autonomia sustatzea da, akzioen artean adin batetik aurrera eskolara bakarrik joateko aukera eta bitartekoak izatea, proiektu konkretu honetan Leioako hainbat eskolek parte hartzen dute gaur egun. Proiektu zehatz honek hainbat fase deitu; inkesta, mapeoa, diagnostikoa eta testea. Urtero herritarren parte-hartzea sustatzeko burutzen duten beste ekimen puntuala “Oinezko bideen martxa” edota herrian ezagunagoa den “Zebra” ekimena da. Ekimen honetan udal zinegotzi zein herritarrak parte hartzen dute, herrian zehar ibilbide bat egiten dute goizean zehar, zinegotziek bizkarrean motxila handi batzuk daramatzate eta herritarrek ibiltzen doazen heinean galderak, zalantzak, kezak edota iradokizunak paperean idatzita motxilan barruan sartzen joaten dira.

Ekimen hau urtean behin egiten dute, urte eta eguraldiaren arabera parte hartzea egoten da baina kuantitatiboki 300 - 600 herritarren ingurukoa izaten da urtero.

“Leioa berdintasunetik!” prozesuari dagokionez, Peter-ek haurren parte hartzea sustatzeko gomendioak eman dizkigu, kolektibo zaurgarrienetako dela kontutan hartuz. Bestalde saio presentzialen deialdiak zabaltzeko konpromisoa hartu zuen gurekin.




2. 3. INKESTA


Inkesten emaitzak taula ezberdinetan bildu ditugu. Aurretik aipatu moduan 20 pertsonak erantzun dute inkesta eta harrigarria bada ere inkesta gehiago jaso ditugu paper fisikoan online bidez baino. Genero ikuspegitik parte hartzea oso parekatua izan da eta adinarekiko ere oso parte hartze anitza izan dugu.

Jarraian, galdera nagusienei erantzundako erantzunen taulak ageri dira, baina lehenik eta behin Leioarekiko duten harremanaren inguruan galdegin diegu eta baita zein auzotakoak diren ere eta hauek dira bi galdera horien erantzunen emaitzak:

PARTE-HARTZEA AUZOKA



LEIOAREKIKO HARREMANA



LEIOA-REKIKO PERTZEPZIOAK

ZER DA LEIOATIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?	ZER DA LEIOATIK GUTXIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?
<p>Itsasoarekiko gertutasuna</p> <p>Nire lagunak</p> <p>Bizitzeko lasaitasuna</p> <p>Kurkudi taberna</p> <p>Herrian zehar dauden gune berdeak</p> <p>Lasaitasuna eta jendea</p> <p>Ekintza kulturalak</p> <p>Lasaitasuna</p> <p>Jendearen jarrera</p> <p>Jende gaztearen inizatiba</p> <p>Herri lasaia eta ongi kokatua dagoela</p> <p>Udondoko boulevard-a</p> <p>Zonalde berde eta aisialdi gune zabalak dituen herria da</p> <p>Artatza parkea</p> <p>Kultur etxea</p> <p>Zerbitzuak</p> <p>Kultur eraikina eta Pinosoloko parkea</p> <p>Itsasoarekiko gertutasuna</p> <p>Kultur eraikina da Leioatik gehien gustatzen zaidana</p> <p>Parke eta zonalde berde ugari daudela</p>	<p>Eraikita dagoen modua</p> <p>Garraioaren komunikazioa</p> <p>Kiroldegi txikia</p> <p>Lapurrak</p> <p>Udaletxearen herri planteamendua: "pueblo dormitorio"</p> <p>Zirkulazio asko, in-sonorizazio gutxi, kiroldegian masifikazio handiegia eta parke gutxi.</p> <p>Trafiko mordoa, giro gutxi kaleetan eta kirol instalazio gutxi</p> <p>Aparkaleku gutxi daudela.</p> <p>Uribe-kostako "kloaka" bilakatu dela.</p> <p>Herriagatik ez dela ezer ez egiten.</p> <p>Dena oso sakabanatua dagoela. Eraikuntza kopuru maila. Aisialdi eta aktibitate kultural gutxi.</p> <p>Duen bizitza txikia eta garbitasuna.</p> <p>Bideragarritasuna.</p> <p>Auzoak oso bananduta daudela eta oso azpi-egitura eta zerbitzu gutxi dituela</p> <p>Metroa ez dela erdiguneraino iristen.</p> <p>Dispertsioa eta euskara maila eskasa. Euskal kirolak apenas egotea</p> <p>Kultur eraikin bakarra dagoela.</p> <p>Kutsadura handia dagoela (Barakaldotik gertu)</p> <p>Tunelaren ostean dagoen estatua.</p> <p>Ez daukala identifikatzen duen erdigune edota espazio publikorik.</p>

LEIOA-REKIKO PERTZEPZIOAK

ZER ALDATUKO ZENUKE?

Eraiki “beharra” horren nahia eta pertzepzioa. Gehiegikeria da!!

Udaletxea

Argiztapena (farolak) auzoen arteko komunikazioa

“Kotxeretan” zentru kultural bat

Udal gobernua

Leioako herritar gehienek eskatzen dutena

Kirol kudeaketa

Giro gehiago

Agintzen dutenen izaera

Kiroldegi handiagoa, jende gaztearentzat aktibitate gehiago

Leku guztietan etengabe eraikitzeari uztea

Metroaren kokapena eta auzoen arteko komunikazioa

Bideragarritasuna

Auzo guztietan aukera eta eskubide berdinak izatea

Ezer ez

Euskararen arloan kudeaketa

Pinosolo parkea bezalako parke gehiago egotea Leioan

Erreferentziatzko plaza edota gune bat egotea auzokideak elkartu ahal izateko

Lamiakon duden fabrikak

Sakonetakoa kiroldegia eta honen ingurunea. Metroaren sarrerak.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

Gune berde “naturalak” sortzea, “lorazainek” mantendu behar ez dutenak landak, basoak, erreka alboko bide “naturalak”

Kaleak, penagarriak.

Bidegorriko argitasuna. Udal polizien jarrera ol-darkorra.

Auzoen arteko komunikazioa

Herritarrek erabakitzen dutena.

Kirol eraikuntzak

Taberna gehiago.

Sarrerak, espaloiak, argiteria, auzoen arteko gututasun eta aldi berean urruntasuna.

Garraioa, udala, jende gaztearentzako aktibitateak, kiroldegia

Gazte jendearekiko aisialdi eskaintza. Garraio publikoa, kiroldegi berria noizko? Leioako biztanleriaren araberako osasun zentroa

Haur parkeak ez daude oso zainduak

11 urtetik gorako haurrentzako espazio eta aktibitateak

Kirola egiteko aukera gehiago, errepide eta espaloiak, parkeak eta berdeguneak, bidegorriak,...

Eraikinak

Euskal pilota indartzea, lan taldeak euskara indartzeko

Jendeak kutsadurarekiko lan gehiago egitea

Metrorako oinezko sarbideak

Haur parkeak estali

Trafikoa zentrotik atera, oinezko kale gehiago. Auzoen arteko komunikazioa.

AUZOARI BURUZ

ZER DA ZURE AUZOTIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?	ZER DA ZURE AUZOTIK GUTXIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?
Zerbitzuetarako gertutasuna	Eraikita dagoen modua
Lasaitasuna	Garraio publikoa
Auzoko lasaitasuna	Aparkatzeko leku gutxi (Elexalde)
/	/
Bizitzeko leku lasaia dela	Auzo oso garestia dela
Herritarren arteko harremana nahiz eta ezberdintasunak izan.	Eraikuntza asko eta Metroarekiko konbinazio gutxi
Auzo giroa	Trafiko larregi
Lasaitasuna	Giro gutxi dagoela
Lasaitasuna eta bistak	Garraio publikoa oso urrun dagoela
Lasaitasuna	Inkomunikaturik gaudela (Elexalde)
Herritar gehienon artean elkar ezagutzen garela eta leku segurua dela (sarbideak izan ezik) eta lasaia.	Sarbideak eta espaloien utzikeria...Lorategiak, heldulekuak,... egoera txarrean
Metroarekiko gertutasuna	Daukagun haur parke txiki eta zaharkitua
Lasaitasuna	Dagoen norabide bakarreko errepidea izugarritzko itzulia eginarazten didana
Lasaia eta ondo komunikatua dagoela	Oso txarto zainduta dagoela, argi gutxi, zerbitzu eskas, espaloiak eta errepidea oso egoera txarrean, berdegunerik ez dago eta kultura emanaldi guztiak auzotik kanpo direla.
Kiroldegia	Ezer ez
Oinezko zonaldea eta estaldura	Despertsionalizazioa
Auzoko festak	Zakur eta gizalege gutxi duen jende asko dagoela (zakurrak solte, kakak,...)
Oinezko boulevard zabala eta metroarekiko gertutasuna	Margotzen dituzten grafitiak
	Beste auzo batzuekiko komunikazioa, adibidez Artatza edota Negurigane

AUZOARI BURUZ

ZER ALDATUKO ZENUKE?

Mandatarien pentsaera!!

Metro linea

Autobusen prezioa

/

Garraio publikoa oso garestia dela

Herriak erabaki dezala

Trafiko kudeaketa

Giro gehiago

Garraio, argiteria,..-en arduradunen ikuspuntu aldaztea

Argiteria, auzoko igoeran argitasun gutxi dagoelako

Lorategien mantenua (espaloietako belarrak...), solte dauden baldosak, helduleku puskatuak... eta igogailua

Haur parkea

Errepide askoren noranzkoak

Oso txarto zainduta dagoela, argi gutxi, zerbitzu eskas, espaloiak eta errepidea oso egoera txarrean, berdegunerik ez dago eta kultura emanaldi guztiak auzotik kanpo izatea konpontzea

Ezer ez

Mendibileko baserriaren erabilera publikoagoa egitea

Garraio pisutsuak kendu soinu eta kutsadura-rengatik

Auzoko paretak ez margotzea eta hutsik dauden zonalde hesituan parke bat egitea

Trafikoaren urbanizazioa, antzinako Unquinesatik kamioiak atera daitezela eta ez erdigunetik

ZER HOBETUKO ZENUKE?

Auzotarren arteko elkarlana

Espaloiak eta errepideak

Autobus geltokia, okindegirik ez, tabernarik ez

/

Denda eta zerbitzu gehiago behar dira

Herriak erabaki dezala

Aparkaleku kantitatea

Taberna gehiago

Herriko puntu beltzak, kiroldegia (hobetu), argiteria, garraioa...

Farolak, aparkalekuak, garraioa, kiroldegia, segurtasuna, errepideak, zakar ontziak

Autobusaren prezioa eta igogailua martxan ez dagoenetan pasatu dadila, zeinek erabiliko ditu egiten ari diren eskailera berriak?

Boulevard-eko garbitasuna, soportal eta zutabeen artekoa

San Juan festetako kokalekua berreskuratzea

Lamiakoko biztanleak besteak bezala tratatzea eta ez auzo marjinal bat bezala

Zaintza, bijilantzia

Andrak-en zentroa hobetzea eta ikastaro eta aktibitateetara ongi egokitzea

Farolak hobetzea

Udondo zaharreko inguruneak eta Metro-rako oinezko sarbidea (atzetik, Ibarbarriko sarrera)

2. 4. SAIO ESPEZIFIKOAK



Prozesu eta metodologiaren atalean ongi azaldu dugun moduan, saio espezifikoetan batik batik A1 tamainako planoen gainean lan egin dugu, batik batik lan honen asmo nagusienetakoa hurrengo urteetan garatuko den Leioaren hirigintza planeamenduaren inguruan sentsibilizatu, formatu eta informazioa baita.

Egindako saioetan parte hartu duten pertsonen aportazioak lehenik eta behin planoen bidez jaso ditugu baina argi dago informazio guztia ezin daitekeela planoetan kokatu hori dela eta ondorengo tauletan planoetan kokatu ahal izan ez dugun informazioa HAPO baten arlo nagusien arabera sailkatuta aurkezten dizuegu.

Bildutako informazio ondorengo arloen arabera sailkatu dugu:

- ESPAZIO PUBLIKOAK
- KOMERTZIOAK
- EKIPAMENDUAK
- MUGIKORTASUNA
- ELKARBIZITZA-ANIZTASUNA
- KUDEAKETA
- ETXEBIZITZA
- INGURUAREKIKO HARREMANA
- INDUSTRIA
- HIRE ETA LURRALDE EREDUA

EMAKUMEAK

<p>ESPAZIO PUBLIKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bizitza urbanoa badago baina espazio sinboliko eta adierazgarri baten beharra. - Ez zait ongi iruditzen Sakonetako institutua lekuz aldatzea, abantaila handia iruditzen zait herriko gazteek herrian bertan ikasteko duten aukera eta ez Baranbiaran (goian)-eraino egunero joan behar izatea. - Estalitako jolas parkeren bat egoteko aukera aztertu beharko litzatekeela uste dut edota txiki-park moduko zer edo zer egotearena euria egiten duenean hurrekin nora joan izan dezagun.
<p>KOMERTZIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Supermerkatu erraldoien gehiegizko eraikitzea: Mercadona... Gainera horrelako gehiago irekitzeko asmoa dago.
<p>EKIPAMENDUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Pinosoloko kiroldegi berriak irisgarritasun arazo handiak ditu. Adineko pertsonak maiz erabiltzen dute igerilekua eta kokapen berri honek arazo bat suposatzen du. - Bigarren hezkuntza Mendibileko eskola zaharrera eraman daiteke. - Kontziliazioa errazteko espazioen beharra, auzoetan ludotekak adibidez. Bestalde emakumeengan kirol jarduerak sustatzeko asmoz kiroldegian bertan horrelako zerbitzu bat egotea ere oso interesgarria litzateke. Umeak x denbora maximoa egoteko aukera eskaini, ordaintzearen truke beharrezkoa baldin bada eta horrela amek kiroldegiak eskaintzen dituen aktibitateetan parte hartu ahalko lukete. - Ekipamendu publikoak duela 20 urteko berberak izaten jarraitzen dute eta harrera gaitasun berdinarekin.
<p>MUGIKORTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Metroa: Metro geltokira iritsi ahal izateko autoaren beharra, honek "lanzadera" funtzioa egiten duelarik. - Leioa erdigunean busa askoz gehiago erabiltzen da Metroa baino. - Bidegorria sarearen jarraikortasuna, kalitatea eta segurtasuna (autoei dagokionez). - Bidegorri sarearen aldeko estrategia garapen bat, sarea funtzionala eta logistika funtzio emanez eta ez soilik aisialdira bideratutakoa. Mugikortasun mota honen aldeko apustu erreala. - Ibai ertzeko errepideari paralelo oinezko eta bidegorri bideak eraikitzea.
<p>ELKARBIZITZANIZTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Soinu maila hobetzea, arazo larria da. - Irisgarritasun kognitiboa: Auzo batzuetako kale guztiek izen berdina dute edota kontrakoa kale berdinak bi izen ezberdin izatea. - Avanzada errepideak asko mugatzen du. - Munduko arrozen antzeko zer edozer egitea.

<p>KUDEAKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Pinuetaren garbiketa eta mantenua. - Pinuetan gazteei begirako alternatibak eskaintzea, tabernak daude soilik. - Egun osoz jardungo duen Berdintasun teknikari baten beharra udal mailako kudeaketa ona egin dezan arlo honetan. Ez soilik kanpaina puntutalak aurpegi zuritze moduan, hori da nire ikuspuntua behintzat.
<p>ETXEBIZITZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitza gehiegi eraikitzen dira.

BAZTERTZE ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK

<p>ESPAZIO PUBLIKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irigarritasuna hobetzeko beharra orokorrean eta irisgarritasun kognitiboa modu partikularrean. - Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako bitarteko gutxi. Jolas parkeetan ere aukera gutxi daude eta daudenean ez daude behar bezala adieraziak.. - Hurrekin joateko plaza seguru eta eroso oso gutxi daude Leioan. Plazaren inguru guztiarekin ikusgaitasuna izatea oso garrantzitsua da segurtasuna bermatzeko.
<p>KOMERTZIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irisgarritasun arazoak taberna eta komertzio txikietan maiz.
<p>EKIPAMENDUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Leioako igerilekua ez dute erabiltzen, kokapena oso txarra duelako, iristeko izugarritzko malda dago irisgarritasuna erabat txarra bilakatzen.
<p>MUGIKORTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Garraio publikora iristeko biztanleek lehenago kotxea garraio lanzadera moduan erabiltzen dute, parking handietan utzi eta bertan lotura egiten duten autobus edota metroa hartzeko. - Autobus zerbitzua eskasa da maiztasunean eta prezioan garesti. Linea urdina bereziki.
<p>ELKARBIZITZA-ANIZTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteek hilerrian “botellon” egiteko elkartzen dira eta bizilagunekin arazoak sortzen ditu.
<p>KUDEAKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleen izendegia irisgarritasun kognitiborako oso txarra da, auzo osoak kale izen berdina dute, kokatzeko arazo asko suposatzen dituelarik.
<p>INGURUAREKIKO HARREMANA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Leioan barne dauden gunen naturalen babeste beharra, batik bat, ibai ertzeko alderdiak. - Leioako landa gunearen babes beharra.
<p>HIRI/LURRALDE EREDUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Leioa auzoen elkarketa bat da, herri gisa identitatearen falta du.

ADINEKOAK

<p>ESPAZIO PUBLIKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gauetan argiteriaren kalitatea oso baxua. Argitasun falta. - Lamiako auzoa oro har itsusia da. - Osasun etxe ondoko plaza oso atsegina da baina horregatik jendez gainezka egoten da, batik bat haurrak eta batzuetan desatsegina egiten da dagoen aglomerazioarengatik.
<p>KOMERTZIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Erosketa zentro handi asko daude. - Komertzio txikia sustatzea. - Komertzio txikiaren falta handia Lamiakon.
<p>EKIPAMENDUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Urgentzia zerbitzua Urduliz-en oso gaizki. Cruces-en hobeto. - Lamiakoko antzoki zaharraren ber- erabilera. - Kiroldegia oso txikia Leioarentzat. - Errekaldeko nagusien etxea batzuentzat ezezaguna nahiz eta etxetik gertuago izan. - Osasun etxe ezberdinak bizi zaren auzoaren arabera, gertutasuna lehenestea ongi.
<p>MUGIKORTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Autobusen geltokien arteko distantziak sobera handiak. - Auzoak konektatuko dituen autobusa. - Autobusen iritsiera orduak markatzen dituen panelaren beharra. - Metroaren ordutegiak asko baldintzatzen du Bilbora aisialdi moduan joatea. - Errepide batzuen mantenua oso txarra da, zulo asko. - Kotxea hartu beharra dago garraio publikora iristeko eta horregatik ere parking handien beharra.
<p>KUDEAKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lamiakon bota den fabrikaren lurzoruan erabilera probisional bat, kotxeen aparkalekurako bada ere.
<p>ETXE BIZITZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adinekoentzat bideratutako co-housing eredu inguruko egitasmoa burutzeko eraikinen zesiaoa.

<p>ELKARBIZITZA- ANIZTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lamiako auzoak lehen beldur gehiago ematen zuen orokorrean. - Lamiakoko auzokideak maiz "guetto" moduan sentitu izan dira. - Lehen Lamiakotik ibiltzean jende guztiak ezagutzen zuen elkar, gaur egun ia denon artean ezezagunak. - Gaur egun dena lerro zuzen bat denez, ikusgaitasuna oso ona da eta segurtasun sentazioa ematen du. - Amaia kalea desatsegina da.
<p>INDUSTRIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lamiakoko zonalde industrial zaharkitu eta utziaren birgaitzea. Ekipamendu ezberdinetarako zonalde paregabea.
<p>HIRI/LURRALDE EREDUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lamiako auzoa bigarren planoan dago.

HAURRAK



... GUSTATZEN ZAIT	... ALDATUKO NUKE	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none"> - Nire etxea - Avanzada errepideko boulevard-a patinekin eta bizikletekin ibiltzeko leku asko dagoelako. - Mendia - Erretegi gunekak 	<ul style="list-style-type: none"> - Avanzada errepidea kentzea - Motorrak eta gurpilak kentzea soinu asko egiten dutelako. - Igerilekuko teilatua ireki eta itxi ahal izatea. - Kultur eraikinaren plazan jolas parke bat egotea. - Beti eguzkia ateratzea, eguraldi ona. - "Pintadak" garbitzea. - Zuhaitz eta esertzeko banku gehiago jartzea. - Haur parkeetan elementu natural gehiago. - Kultur-eko plazara jaitsi ahal izateko eskailerak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Estalitako parkeak - Tirolina -Mozorroak - Port Aventura - Natur gunek gehiago - Belarra duten jolas parkeak - Zirkuaren gaiarekin jolas parke bat - Baratza parkeak



2. 5. SAIO IREKIA

EKIPAMENDUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Auzoetan sala polibalenteak egotea topaketa gune moduan. - Azpi-erabilitako instalazioak baliatzea (Ondiz dorrea, Mendibile,..)
MUGIKORTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Semaforoetan seinale akustikoa. - Zonalde batzuk oinezko bilakatzea, bide autonomoak sortzea. - Bidegorri sare funtzionala, bizikletentzako aparkaleku publiko eta seguruak. - Asteburuetan trafikoa erdigunetik saihestea, oinezko ibilbideak sustatzeko. - Boulevard-eko estalpea egokitzea, benetako gune estali bat sortu dezan. - Espaloi leunak (adibidea: Iparragirre kalea) - Behatokira eskailerak - Auzo eta Metroaren arteko komunikazioa hobetzea.
ELKARBIZITZANIZTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerritar sentsazioa ez bazara jaiotzez Leioakoa. (1973 tik Leioan bizi den emakume batek adierazitakoa). - Erdiguneko plaza publiko bat berreskuratzea.
ETXEBIZITZA	<ul style="list-style-type: none"> - Eraikuntzen mugatzea. - Etxebizitza eredu familia eredu berriei egokitzea, batik bat, alokairu sozialen kasuan. - Co-housing sistemak.
INDUSTRIA	<ul style="list-style-type: none"> - Gaur egungo industria mantendu. - Poligono industrial berria (Unquinesa).
HIRI/LURRALDE EREDUA	<ul style="list-style-type: none"> - Lur azpiko oinezko bideak goratu. - Argiteria.

PROPOSAMENAK - ERRONKAK

- Nasa eta Espazio irekien sistemaren konexioa.
- EHU-ko ikasleak Leioa herrira erakartzea. Horretarako gakoa garraioa. Negozio ideiak garatzeko parke teknologiko bat egotea ere oso interesgarria litzateke. Unibertsitatea herriarekin integratu ezean, Leioa udalerrri barruan dagoen "irla" moduan somatzen da.
- Autobus zerbitzu zabalagoa geltoki eta ibilbide aldetik eta ekonomikoa.
- Lamiako-ko metro zatia lur azpiratzea.

HAPO baten ardatz nagusien inguruko informazioa bildu ostean, amaitzeko AMIA batean oinarritutako ariketa sinplea egin genuen. Parte hartzaileen arabera Leioako alderdi positibo eta negatiboak identifikatu asmoz eta hauek dira lortutako emaitzak:

ALDERDI POSITIBOAK

- Musika eskola ona
- Hezkuntza eskaintza handia eta kalitatezkoa. Herriak hezkuntza zentroyen aldeko garapena izan du, erdigunean kokatuta egotea asko baloratzen da.
- Haur parke eta parke berdeak arruntak, "standar"-ak dira, baina orokorrean espazio publiko onak.
- Lasaitasuna
- Kirolegia zaharkituta eta txikia gelditu bada ere, bizitza handia ematen dio herriari. Gakoetako bat duen erdiguneko kokalekua da eta berarek mantentzea garrantzitsua da.

ALDERDI NEGATIBOAK

- "Avanzada" : Zarata, kutsadura eta banaketa.
- Metro geltokia oso urrun dago. Bestalde, garraio publiko ezberdinentzako baliogarria den txartel bakarra egotea interesgarria litzateke.
- Haur espazioak ez daude estalita.
- Bizi urbano eza. Etxebizitza eskaintza oso handia egon da azken urteotan herrian eta honek kanpotik etorri den jende asko erakarri du Leioara bizitzera baina pertsona hoiak ez dute gero beraien egunerokotasuna Leioan egiten. Larunbata eguerditik aurrera herria hilda egoten da urte guztian zehar.
- Herrigune edota herrian erdigune baten gabezia. Oso herri sakabanatua da, auzoz osatutako herri bat.
- Leioa "hezkuntza hiri" moduan antzematen da. Eskola pribatu asko (esclavas, Eskartza, ingles eskola,...) kokatu dira Leioan, unibertsitatearen kokapenarekin batera.
- Erdigunea "avanzada" errepideruntz garatu da baina hegoaldera, hau da, metro geltoki aldera ez du halako garapenik izan.
- Santuena eraikuntza maila mugatu beharra. Espazio irekiekin oreka bilatu behar da.
- Aparkaleku falta egunerokotasuneko egin beharrak garatu ahal izateko.
- Aparkaleku dimentsio oso txikiak.

2. 6. PLANOAK

Aldez aurretik aipatu dugun moduan, parte-hartze prozesutik lortutako informazio asko Leioaren planoan ganean lan egitetik lortu dugu, planoan ganean marrazten eta lekuak identifikatzen lan egin baitugu. Emaitza gisa parte-hartze saio guztietako informazioa batu eta ondoren azaltzen ditugun lau planotan antolatu dugu jasotako informazio guztia. Planoetan informazio asko dago, horregatik eranskin moduan atxikituko ditugu lau plano hauek tamaino handiagoan lortutako emaitzak modu argiagoan apreziatu ahal izateko.

Lortutako planoak ondorengoak dira:

1. ESPAZIO PUBLIKOAK ETA EKIPAMENDUAK

Plano honetan prozesuko parte hartzaileek gehien bat erabiltzen dituzten espazio publiko eta ekipamenduak identifikatzen dira, sailkapen berezi bat eginez haurrek erabiltzen eta erabiltzen ez dituzten espazioekiko.

2. KOMERTZIOA ETA LURRALDEA

Bigarren plano honetan modu berdinean parte hartzaileek gehien bat erabiltze dituzten komertzio eta natur gune, espazio edota ibilbideak identifikatuta agertzen dira.

3. MUGIKORTASUNA


Mugikortasunari dagokionez, parte hartzaileek egunerokotasunean garatzen dituzten mugikortasun mota ezberdinak adierazi ditugu, mugikortasun mota ezberdinak lerro ezberdinekin irudikatuz, hemen azpian mugikortasun eredu ezberdinen laburpena aurki dezakegu.

	IBILGAILUAK/VEHICULOS		BIZIKLETA/BICICLETA
	AUTOBUSA/AUTOBUS		BIDEGORRI
	METROA/METRO		AISIALDI IBILBIDEAK/ RECORRIDOS DE OCIO
	GINEZKOAK/PEATONES		AUTOBUS GELTOKIA/ PARADA AUTOBUS
	HAURREN GINEZKOAK/ PEATONES NIÑAS/ÓS		METRO GELTOKIA/PARADA METRO

4. PERTZEPZIOAK





Azkenik, saio guztietan pertzepzio ariketatik ondorioztatutako emaitza plana garatu dugu. Plano honetan proposatutako sentsazio edota pertzepzio ezberdinen inguruko emaitzak ikus ditzakegu, zehaztutako pertzepzio motak ondorengoak izan dira.

	ALAITASUNA/ALEGRIA		EDERTASUNA/BELLEZA		UTZIA/DEJADEZ
	URRUN/LEJOS		BIZIRIK/VIVO		HUTSUNA/VACIO-FALTA
	LASAITASUNA/TRANQUILIDAD		BELDURRA/MIEDO		ITSUSIA/FEO
	GERTU/CERCA		EROSOA/COMODO		SOBERA/DEMASIADO



01 PLANOA

ESPazio PUBLIKOAK ETA EKIPAMENDUAK /
 ESPACIO PÚBLICO Y EQUIPAMIENTOS
 ESKALA 1:5000

-  ESPAZIO PUBLIKOAK / ESPACIOS PÚBLICOS
-  HAURRAK ERABILTZEN DITUZTEN ESPAZIO PUBLIKOAK /
 ESPACIO PÚBLICOS QUE UTILIZAN LAS/OS NIÑAS/OS
-  HAURRAK ERABILTZEN EZ DITUZTEN ESPAZIO PUBLIKOAK /
 ESPACIO PÚBLICOS QUE NO UTILIZAN LAS/OS NIÑAS/OS
-  EKIPAMENDUAK / EQUIPAMIENTOS






02 PLANOA

KOMERTZIOA ETA LURRALDEA / COMERCIO Y TERRITORIO











ESKALA 1:5000

- KOMERTZIOA/COMERCIO
- LURRALDEA/TERRITORIO






03 PLANOA
 MUGIKORTASUNA / MOVILIDAD
 ESKALA 1:5000

- | | | | |
|---|---|--|--|
|  | IBILGAILUAK/VEHICULOS |  | BIZIKLETA/BICICLETA |
|  | AUTOBUSA/AUTOBUS |  | BIDEGORRI |
|  | METROA/METRO |  | AISIALDI IBILBIDEAK/
RECORRIDOS DE OCIO |
|  | OINEZKOAK/PEATONES |  | AUTOBUS GELTOKIA/
PARADA AUTOBUS |
|  | HAURREN OINEZKOAK/
PEATONES NIÑAS/OS |  | METRO GELTOKIA/PARADA METRO |





04 PLANOA

PERTZEPZIOIA / PERCEPCIÓN
ESKALA 1:5000

- | | | | | | |
|--|--------------------------|--|--------------------|--|---------------------|
| | ALAITASUNA/ALEGRIA | | EDERTASUNA/BELLEZA | | UTZIA/DEJAEZ |
| | URRUN/LEJOS | | BIZIRIK/VIVO | | HUTSUNA/VACIO-FALTA |
| | LASAITASUNA/TRANQUILIDAD | | BELDURRAMIEDO | | ITSUSIA/FEO |
| | GERTU/CERCA | | EROSOA/COMODO | | SOBERA/DEMASIADO |



3. Ondorioak

3.1. PROZESUAREN METODOLOGIA ETA KOMUNIKAZIOA

Prozesuan zehar garatutako metodologia egokia izan dela uste dugu nahiz eta datu kuantitatiboak oso erakusgarriak ez izan.

Metodologia parte hartzaileekiko ongi egokitu da, bereziki positiboki baloratzen dugu saio espezifikoa lehenengo atala, genero ikuspegia eta ikuspegi inklusiboa hirigintzan zer den azaltzen zuen zati formatiboa hain zuzen ere. Proposatutako ariketak ere egokiak izan dira informazio bilketari dagokionez, planoekin lan egiterako orduan pertsona batzuek erraztasun gehiago izan dute kokatzerako eta beste batzuek zailtasun gehiago baina saio guztietan lan talde txikietan lan egin dugunez, parte hartzaile ezberdinak beraien artean elkar lagundu dira eta dinamizatzaileok ere rol garrantzitsua izan dugu informazio guztia jaso eta biltzerako orduan. Gainera kasu guztietan aportazioak planotik at ere jasotzeko aukera izan da.

Saio presentzialei dagokionez, hasieran aipatu bezala ez dugu emaitza onik izan. Zergatia hainbat faktoreren ondorioz izan dela uste dugu; komunikazio planaren exekuzio ez egokia, bete beharreko epe oso estuak, proiektuko kide ezberdinen arteko koordinazio gutxi momentu jakin batzuetan, difusiorako denbora epe oso txikiak eta amaitzeko leku guztietan orokortzen den faktorea, herritarren motibazio eta inplikazio falta, alde batetik azken urteotan parte-hartze prozesuen saturazioagatik eta bestalde prozesu hauekiko duten konfiantza eta zilegitasun faltagatik, askotan prozesu hauetatik eratorritako emaitzak ez direlako lotesleak izaten.

Kualitatiboki aldiz prozesuan parte hartutako perfilak oso anitzak izan dira bai genero zein kolektibo motei dagokionez. Adinari dagokionez ez da hasiera batean gustatuko litzaiguen bezain anitza izan, ez baitugu lortu gazteen saio espezifikoa burutzea, baina elkarrizketen fasean gazte gutxi batzuen aportazio aberasgarriak jasotzeko aukera izan dugu.

Orokorrean nabarmendu nahi dugu Leioako herritar askorengana iristea lortu ez badugu ere bi helburu nagusiak bete ditugula, lehenengoa hirigintza arlotik beraien burua oso urrun kokatzen duten herritar kolektiboetara gerturatzea, prozesuan zehar parte hartzea eta beraz, beraien aportazioak eta ikuspuntua bildu ahal izatea, bigarrenik etorkizuneko Leioako HAPO berriaren idazketa prozesuari begira prozesuan parte hartu duten herritarrek nabarmenki ahalduntzea.

Leioako HAPO berriaren planeamenduari begira, herritarrez osatutako genero ikuspegitik abiatutako jarraipen komisio bat sortaraztea proposatzen dugu, prozesu honetan ateratako emaitzak aintzat hartzen direla bermatzeko. Komisio berri horren sorrerarako lan taldea osatzeari begira prozesuan aktiboki parte hartu duten pertsonei deialdia helaraztea gomendatzen dugu.

3.2. PARTE-HARTZE HERRITARRAREN EMAITZAK

TAULAK

Amaitzeko jarraian Leioako HAPO-aren genero ikuspegiko parte hartze diagnostikoaren bitartez jasotako emaitzen ondorioak azaleratzen ditugu. Aldez aurretik aurkeztutako emaitza guztiak bildu eta bateratzen, taldekatzen eta informazioa antolatu ostean HAPO-en arlo nagusien arabera sailkatutako ondorio nagusi hauek atera ditugu, beti ere, Leioako herritarren parte hartzearen ondorioz ateratako ondorioak noski.

Parte hartzaileek adierazitako behar, hobekuntza eta gabeziek proiektu honen lehenengo fasetik eratorritako analisi tekniko dokumentuaren ondorioetako batzuk nabarmentzen dituzte. Dokumentu honetako ondorioak aldiz, ikuspuntu zehatzagoa dute askotan, diagnostiko hau herritarren eguneroko bizipen eta esperientzietatik eratorria baita.

Azaldutako ikuspuntu honegatik beragatik, herritar diagnostiko bat den heinean, HAPO batek barnebiltzen dituen hainbat arloren inguruko aportazio gutxi jaso ditugu, hala nola, hiri-lurralde eredia, inguruarekiko harremana edota industria, bestalde, aldiz, pertsonen egunerokotasuneko bizitzan eragiten duten inguruko gaien inguruan aportazio gehiago jaso ditugu.

ESPAZIO PUBLIKOAK	<ul style="list-style-type: none">- KALITATEZKO ETA GERTUKO PLAZA, ESPAZIOEN FALTA-ESPAZIO PUBLIKO ETA ESPAZIO IREKIEN ARTEKO KONEXIOA, BENETAZKO SAREA OSATZEKO.- ESPAZIO PUBLIKOEN DISEINUA HOBETZEA PERTSONA GUZTIETARA EGOKITU AHAL IZATEKO (IRISGARRITASUNA OROKORREAN ETA KOGNITIBOA BEREZIKI)- HAUR ETA GAZTEENTZAKO ESPAZIO SEGURU ETA ERAKARGARRIEN BEHARRA. HAUR PARKE ETA ESPAZIO ESTALIEN BEHARRA.- ESPAZIO SINBOLIKO ETA ERREPRESENTATIBO NAGUSI BATEN BEHARRA.- AVANZADA ERREPIDEA GURUTZATEKO OINEZKO BIDEEN ARGITERIA ALDATU ETA HOBETZEA.
------------------------------	--

<p>KOMERTZIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - MERKATAL GUNE HANDI GEHIEGI - KOMERTZIO TXIKIA SUSTATZEKO BEHARRA: ALDE BATETIK HERRITARREK BIZITZA URBANOA SUSTATZEN DUEN ELEMENTU GISA ULERTZEN DUTELAKO ETA BESTALDE EGUNEROKO BIZITZA ERRAZTEN DUTELAKO HAUEN GERTUTASUNARENGATIK. - AUZO ERRESIDENTZIALETAN KOMERTZIO TXIKIAREN BEHARRA.
<p>EKIPAMENDUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - EKIPAMENDUEN TIPOLOGIA EGUNERATZEKO BEHARRA BATIK BAT GAUR EGUNGO HERRITARREN BEHAR ERREALETARA, ERABILERAN MALGUTASUNA ESKAINTZEKO AUKERA TXERTATUZ. - IGERILEKUAREN KOKAPENA OSO TXARA, IRISGARritasun eta distantziagatik. - GAUR EGUNGO KIROLDEGIAREN BIRMOLDATZE/EGUNERATZE BEHARRA BAINA BERE KOKALEKUA MANTENDUZ, ERDIGUNEAN BIZI URBANOA SORTZEN DUEN ELEMENTU GARRANTZITSUENETAKO BAT DELAKO. - INDUSTRIA GUNE ZAHARRETAN EKIPAMENDUAK JARTZEKO AUKERA POLITA - EKIPAMENDU EZEZAGUN EDOTA AZPI-ERABILITAKOEN ERABILERAK SUSTATU ETA ZABALDU.
<p>INGURUAREKIKO HARREMANA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - LEIOAKO EREMU NATURALEN BABESA ETA BERRESKURATZEKO BEHARRA, BATIK BAT IBAI ERTZEKO ZONALDEA, DARSENAREN BERRESKURATZEA ETA ESPAZIO IREKI SISTEMAREN KONEXIOAK. - LEIOAKO INGURUNE RURALA BABESTEKO BEHARRA. - HIRIKO ESPAZIO NATURAL GEHIAGOREN BEHARRA. - HIRIKO BARATZA PARKEEN BEHARRA.

<p>MUGIKORTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - GARRAIO PUBLIKOAREN KONEXIO TXARRAK, KOTXEEN BEHARRA LANZADERA MODUAN GELTOKIETARA IRISTEKO. - AUZOEN ARTEKO BUS ZERBITZU URBANOAREN BEHARRA. - BILBOREKIKO BUS ZERBITZUA HOBETZEA (ORDUTEGIA ETA GELTOKIAK). - GARRAIO PUBLIKO BITARTEZKO AUZO, LEIOA ERDIGUNE ETA METRO GELTOKIA KONEKTATUKO DITUEN ZERBITZU BATENA. - ERDIGUNETIK ALDENDUTAKO AUZOETAN BUS GELTOKIEN ARTEKO GELTOKIEN ARTEKO DISTANTZIA TXIKIAGOAK ETA BUS MAIZTASUNEN INGURUKO INFORMAZIOA EMATEN DUTEN PANELEN BEHARRA. - AUTO APARKALEKU FALTA OROKORREAN ETA ERDIGUNEAN BEREZIKI, BESTALDE APARKALEKUEN DIMENTSIO HANDIAGOEN BEHARRA. - BIDEGORRI SARE JARRAITU ETA FUNTZIONAL BATEN BEHARRA, EZ SOILIK AISIALDI ESKAINTZARRAKO ETA BIZIKLETA APARKALEKU SEGURUAK.
<p>KUDEAKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - LURZORU HUTSETAN ERABILERA PROBISIONALAK SUSTATU. - AUZOEN ARTEAN DESOREKAK. - KALEEN IZENDEGIAK ARAZOAK SORTARAZTEN DITU KOKATZERAKO ORDUAN, KALE IZEN BATEK BERTAN AUZO OSO BATI EGITEN BAITIO ERREFERENTZIA MAIZ, IRISGARRITASUN KOGNITIBOAREKIKO ARAZOA SUPOSATZEN DU. - KANPUS UNIBERTSITARIOKO IKASLEEN ESKAERAK (BATIK BAT ETXEBIZITZA BEHARRARENAK) LEIOARUNTZ ERAKARRI.
<p>ETXEBIZITZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - ERABILERA ZESIO EDOTA ERAIKIN PUBLIKOEN ZESIOAK SUSTATU PROIEKTU KOMUNITARIOEN ALDE. - ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA MUGATU BATIK BAT AUZO ERRESIDENTZIALEN LOGIKAREN BARNE DIRENEAN BESTELAKO ERABILERARIK GABE AUZOAK SORTZEAK LOTAKO HIRIAK SUSTATZEN DITU ETA.

<p>ELKARBIZITZA- ANIZTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - LEIOAK ESKAINTZEN DUEN LASAITASUNA ALDEBIKO EZAUGARRI GISA ULERTZEN DA, ALDE BATETIK POSITIBOA BADA ERE HERRIAN DAGOEN BIZI FALTAREN ADIERAZLE ERE BADELAKO. - “AVANZADA” ERREPIDEAREN MUGAK ASKO BALDINTZATZEN DU HERRIAREN BI ALDEETAKO ELKARBIZITZA. HERRIAREN HAUSTURA NABARMENA DA. - GAZTEENTZAKO ESPAZIO ETA ALTERNATIBAK ESKAINTZEA. - ZARATA ARAZOA ORO HAR, KONPONBIDE BATEN BEHARRA. - HERRI IDENTITATE FALTA, AUZO ALDENDUAK EZ DIRA LEIOAREN PARTE SENTITZEN ETA ALDI BEREAN ERDIGUNEAK EZ DU IDENTITATE ESANGURATSURIK EZTA ERE. LEIOA AUZOEN ELKARKETA BATEN EMAITZA GISA PERZIBITZEN DA. - LAMIAKO AUZOAN IBAIAREKIKO LOTURA FALTA METROKO LINEAK SORTARAZTEN DUENA.
<p>HIRI/LURRALDE EREDUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - LOTARAKO HIRIA, AZKEN URTEETAN JENDE ASKO ETORRI DA BIZITZERA LEIOARA BAINA EZ DUTE EGUNEROKO BIZITZA BERTAN EGITEN. BIZI URBANOAREN FALTA NABARMENA ETA HONEK HERRIAREKIKO IDENTITATE SENTIMENTUA SORTARAZTEA OZTOPATZEN DU.
<p>SEGURTASUNA “PUNTU BELTZAK”</p>	<ul style="list-style-type: none"> - GAUETAN ARGITASUN FALTA OROKORREAN. ARGITERIAREN KALITATEA OSO TXARRA - AVANZADA ERREPIDE GAINEKO OINEZKO BIDEKO PARETEN PINTURA TXURI ETA GORRIA GARBITZEA. PARETAK PINTATUAK EGONDA EZIN ZAITU INORK IKUSI EZTA ZUK NOR DATORREN IKUSI ERE. - ONDIZ-ETIK GOIKO BEHATOKIRA ARGITASUN ETA OINEZKO BIDE HOBEAK. - AVANZADA ERREPIDE AZPITIK PASATZEN DIREN OINEZKO BIDEAK DESAGERTARAZTEA. - UDONDO BOULEVARD-EKO ARGITERIA ALDATU ETA SOPORTALEK SORTARAZTEN DUTEN SEGURTASUN EZARI KONPONBIDEA EMAN.

PLANOAK

Azkenik, prozesuko informazioaren ondorioz garatutak lau planetatik ateratako hainbat ondorio azalerazi nahi ditugu. Plano bakoitza gaur egun balion dagoen Leioako HAPO-aren inguruko hainbat arloren inguruko informazioa helarazi digute.

1. ESPAZIO PUBLIKOAK ETA EKIPAMENDUAK



Kasu honetan Leioa erdiguneko zoom bat egin dugu, bertan ikus daitekeen moduan herriko espazio publikoak eta ekipamenduak erdigunean kontzentratzen baitira, auzoetako espazio publikoak pobreak eta oso gutxi baloratuak direla azaleraziz.

Haurrengandik erabilitako espazio publikoak hiru dira erdigunean: Kultur eraikinaren plaza, "Pinotxo" plaza eta osasun zentroaren alboko plaza. Kultur eraikin ondoko plaza aldi berean positiboki eta negatiboki baloratua dago, gurpildun trafikotik aldentutako espazio zabala izanik ere ez duelako haurrentzako jolas eremu berezirik eskaintzen.

Orokorrean baloratuen eta erabiltzen identifikatutako espazio publikoak ekipamenduen inguruan kokatutakoak dira eta hurrek gehien erabiltzen dituztenen berdinak. Gehien baloratutako ekipamenduak Kultur -a eta musika eskola izan dira.

2. KOMERTZIOA ETA LURRALDEA



KOMERTZIOA

Plano honi egindako argazki honetan, berriz ere ikus dezakegu komertzio txiki ia guztia Leioa erdigunean kokatzen dela, auzoetako jendea behartuz edozein erosketa txiki egin behar izanez gero erdigunera joan behar izatera. Lamiako auzoa izan da salbuespen bakarra, dagoeneko aipatu moduan izaera eta auzo bizitza nabarmena duen auzoa izanik, bertan ere komertzioa txiki batzuk identifikatu dituzte bertako auzokideek.

Bestalde, aipatu nahi dugu parte hartzaileek merkatal gune handiak ere markatu dituztela hauen erabilera nabaria baita orokorrean.

LURRALDEA

Leioako baliabide natural gisa, ia ia bateratasun osoz parte hartzaile guztiek natur gune erabilien gisa Artatza eta Pinosoloko parkeak markatu dituzte.

Bestalde, ibai ertzeko zonaldea ere positiboki baloratzen da, gaur egungo egora txarra izanda ere.



3. MUGIKORTASUNA



Erdigunean egindako zoom honetan ikus dezakegu mugikortasun modu guztietako ibilbide nagusi guztiak Leioaren erdigunean biltzen direla. Bereziki gurpildun trafikoarena avanzada errepidearengatik eta baita oinezko ibilbide nagusiak ere erdigunea delako. Ondorio gisa ikus daiteke gurpildun mugikortasun ardatz nagusia avanzada errepidea dela baina intentsitate baxuagoan Getxo eta Bilbo elkartzen dituen ardatz garrantzitsu ere dago, ibai eta Metro linearekiko paralelo. Bi ardatz nagusi hauek paraleloak direnez, oinezko, bizikleta eta autobus ibilbide gehienak bi ardatz hauek elkartzean datza.



BIZIKLETA ETA BIDEGORRIA

Planoan ikus daitekeen moduan parte hartzaileek bizikleta bidez egiten dituzten ibilbideak soilik Bidegorri saretik egiten dituzte, nabarmenduz Bidegorritik kanpo bizikletaz ibiltzeko deserosotasun eta segurtasun falta. Bestalde agerian ikusten da halaber, Bidegorri sarea nahiko eskasa dela eta aisialdiari bideratutako ibilbideak direla, herriko parke nagusiak eta hondartzarako bidea lotzen baititu soilik eta ez da erdiguneko kale garrantzitsuenetatik pasatzen.

AISIALDI IBILBIDEAK

Azkenik, mugikortasunari dagokionez, paseo moduan ibiltzera joaterako orduan parte hartzaileek nabarmenki Leioako landa eremu eskasaren inguruko ibilbideak markatu dituzte. Noski, hondartza alderako ibilbideak ere garrantzitsuak dira baina ibilbide nagusiak Leioako parke handiak eta iparraldeko baserri auzoak elkar lotzen dituztenak dira.




4. PERTZEPZIOAK

Amaitzeko, pertzepzio ariketatik ateratako emaitzak aztertu nahi genituzke. Ariketan parte hartzaileei planoan kokatzeko eskatzen genizkien pertzepzioak ondorengoak ziren.

	ALAITASUNA/VALEGRIA		EDERTASUNA/BELLEZA		UTZIA/DEJADEZ
	URRUN/LEJOS		BIZIRIK/VIVO		HUTSUNA/VACIO-FALTA
	LASAITASUNA/TRANQUILIDAD		BELDURRA/MIEDO		ITSUSIA/FEO
	GERTU/CERCA		EROSOA/COMODO		SOBERA/DEMASIADO

PINOSOLO ETA ARTATZA-KO PARKEAK

Ondorengo argazkietan Pinosolo eta Artatza parkeetako zatiak ikus ditzakegu. Pinosolo parkeari dagokionez aipatzekoa da parte hartzaileek honekiko duten edertasun sentsazioa da, hala ere ikus dezakegu natur espazio ederra izanda ere honen utzikeria nabarmendu dutela. Azkenik argazki honetan ageri den "puntu beltza" ere ikus dezakegu, avanzada errepidearen azpitik pasatzen den oinezko bideari dagokiona hain zuzen ere. Artatza parkeari dagokionez, leku eder eta alaitasuna helarazten duen eremu gisa definitu dute.



AVANZADA ERREPIDEA

Avanzada errepidea "sobera" adjektiboarekin definitu dute batik bat, sobera trafiko, zarata, molestia, banaketa,... Errepide honek herrian zatiketa eta deserosotasun handia suposatzen du. Bestalde, aurretik aipatu bezala honen azpikaldetik oinezkoak pasatzeko dituzten tunelak segurtasun falta guneak sortarazten ditu. Bestalde, itsusia kontsideratzen dute, bai estetikoki itsusia delako baina baita pertsonen egunerokotasunean sortarazten duen banaketaren konotazoarengatik ere. Amaitzeko errepide honen gainean dagoen boulevard-a positiboki baloratu dute, erositzat jotzen dutelako banaketa handi honetan elkarketa gune txiki hau egotearena.



ERDIGUNEKO ESPAZIO PUBLIKOAK


Herritarrek gustukoan dituzten hiriko espazio publikoak goialdean adierazitako argazkietan ikus ditzakegu. Alde batetik Kultur eraikinaren bi aldetan kokatuak dauden bi plazak daude, hegoalderago kokatua dagoena baloratuagoa dagoelarik, alde batetik alaitasuna adierazi dute, plazak duen bizitzagatik eta bizia kalifikatiboa ere erabili dute, erdigunean kokatua dagoen plaza honentzako. Jarraian "Pinotxo" izenarekin herrian ezaguna den plaza ikus dezakegu, bereziki plaza bizi moduan kalifikatu dute, bertan herriko haur eta ondorioz hauen zaintzaile asko elkartzen baitira. Azkenik, Txomin Aresti eskolako jolastokia zein erdiguneko osasun etxe ondoko plaza alaitzat definitu dute, beste behin ere egunerokotasunean hurrez betetako plaza edota espazioak direlako.

Hiru espazio hauen faktore komunak erdigunean kokatuak dauden espazio publikoak direla dira, ekipamendu nagusienetatik gertu eta baita hiru-lau espazio hauek gurpildun trafikotik aldenduak edota babestuak dauden eremuak direla, eta beraz, segurtasuna helarazten dute eta noski hurrekin joateko espazio baliagarriak bilakatzen dira.



URRUNTASUNA

Gutziz amaitzeko, askotan errepikatu den urruntasun kalifikazioa azalerazi nahiko genuke. Nabarmenki urrun sentitzen duten eremu bat Metro geltokiarena da, ez soilik erdigunetik urrun dagoela uste dutelako, baizik eta bertara iristeko dauden garraio publiko zein ibilbideak ez direlako egokiak, alderdi horretara herriaren garapen urbanoa ez da egokitzat jotzen. Urrun gisa markatutako beste bi eremuak Txorierri auzoa, aldi berean lasaitzat jotzen dutena eta Sarrienako kirol eta hezkuntza instalazioak izan dira.



Nork:
hiri. Dunak taldea



Norekin:



Norentzat:



Noren partaidetzarekin:

